

# KORNELIO

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 36 or. 15 €.

**Kornello** (euskaraz)

ISBN 978-84-9172-084-3. Gaur egungo klasikoak.

**Cornello** (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-452-1. Clásicos contemporáneos.

**Cornello** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-451-4. Tras os montes.

**En Cornèllus** (katalanez)

ISBN 978-84-16804-66-5. Clàssics contemporanis.

**Cornellus** (portugesez)

ISBN 978-989-749-115-3. Clássicos contemporâneos.

*Arrautzak zabaldu zirenean,*

*krokodilokumeak ibaiaren bazterrerantz*



*herrestatu ziren.*

*Kornelio, ordea, zutik ibiliz atera zen...*

Kornelioren istorioak, Lionniren beste lan guztiek bezala, pentsatzeko eta bizi-irakaspen baliotsuak ikasteko gonbita da. Haur literaturako klasiko honetan ederki islatzen dira ezarritako eguneen arabera jokatzeko ez duenaren bestelakotasuna, harekiko elkar ulertze eta begirunearen balioa eta ikasbideak eskatzen duen ahalegina.

Ipuin honetako krokodilo protagonista da bere komunitateko guztien artean zutik ibiltzen den bakarra. Maila horretatik, gainerakoek ikusi ezin dituzten gauzak ikusten ditu. Besteek, ordea, ez diete garrantzirik ematen ez asmo-zabaltasunari, ez eboluzionatzearen abantaileri ere. Gainerakoek konformismoaren aurrean, Korneliok aurrera egin nahi du, pozik laguntzen dioten beste animalia batzuen trebetasunetatik ikasiz.

Alderdi estetikoetik, Leo Lionni-k collage eta kolore-orbanak direlako teknikak baliatzen ditu, beraren beste obra nabarmen batzuetan ere erabiliak, hala nola "Igeritz" eta "Arrarik arra". Halakoetan, naturaren mundua dinamikotasunez, argitasunez eta kolore-oparotasunez islatzen da.



- **Galak:** bestelakotasuna, pertseberantzia, ikasketa-prozesua.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** garai guztietako haur literaturako klasiko bat; *kolore-orbanen* teknika; honako hauen egileberarena: "[Alex eta sagu mekanikoa](#)", "[Frederick](#)", "[Urdin Txiki eta Hori Txiki](#)", "[Igeritz](#)", "[Matiasen ametsa](#)", "[Munduko etxerik handiena](#)", "[Arrarik arra](#)", "[Colores](#)", "[Números](#)".
- **Liburuaren aurrerapena:** <https://issuu.com/kalandraka.com/docs/kornelio-eusk>

## Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910 - Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen -haren ama operakantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia- eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktoratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista mailako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionni-k berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenak adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabean sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiz egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40 obra baino gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea

soltxate@pamiela.com